



FIRMADO POR

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY
15/02/2024 12:17



LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
[Telf. 948637005](tel:948637005)
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

BANDOA / BANDO

***LESAKAKO ARGAZKI ZAHARRAK
BADITUZU?***

Lagun agurgarri hori:

**Badira hilabete batzuk herritar talde bat
Lesakako fototeka (argazki zaharren
bilduma) osatzeari ekin ziola. Udalak ekimen
hori sostengatzen du.**

**Fototeka horretara gure herriko oroimen eta
gogo grafikoa bildu nahi dugu, hau da,
Lesaka zein lesakarron argazkiak bildu,
digital bihurtu eta sarean partekatu nahi
ditugu.**

**Izan ere, gure burua ezagutu, gure banan
banako zein talde garapena eta aldatzea, gure
paisaiaren moldatzea... egungo gure
nortasunaren parte dira. Ezagutu
beharrekoak. Gozatu beharrekoak.**

**Iragan mina baino, etorkizuna eraikitzeko
ekimena da. Zeintzuk garen, nondik gatozen
eta norat goazen. Talde sena indartuz, ariketa
kolektiboa eginez, ongi pasatzeko unea
sortuz... horrela egin nahi dugu hausnarketa.**

**Bistan denez, denon partehartzea
ezinbertzekoa da: ahalik eta argazki gehiago
orduan eta aniztasun handiago, orduan eta
oroimen handiago.**

****ARGAZKI ZAHARRAK ETXEAN**

¿TIENES FOTOS ANTIGUAS DE LESAKA?

Estimado/a vecino/a:

Hace ya varios meses que un grupo de vecinos comenzó a completar la fototeca (colección de fotos antiguas) de Lesaka. El Ayuntamiento sustenta esta iniciativa.

En esta fototeca queremos recoger la memoria y el recuerdo gráfico de nuestro pueblo, es decir, recopilar fotos tanto de Lesaka como de lesakarras, digitalizarlas y compartirlas en la red.

Y es que conocer nuestro pasado, el desarrollo y la transformación individual y colectiva, la adaptación de nuestro paisaje... forman parte de nuestra identidad actual. Identidad que debemos conocer. Y disfrutar.

Más que mirar con nostalgia al pasado, se trata de una iniciativa para construir el futuro. Quiénes somos, de dónde venimos y a dónde vamos. Reforzando el espíritu de grupo, haciendo un ejercicio colectivo, creando un momento de diversión... es así como queremos reflexionar.

Evidentemente, es imprescindible la participación de vecinos y vecinas: cuanto mayor número de fotografías, mayor diversidad, mayor memoria.

**¿TIENES FOTOS ANTIGUAS EN CASA Y*



SELLO

Iragarki-ohol elektronikoa argitaratua
15/02/2024



LESAKA

Lesakako argazki zaharren bilduma - SEFYCU 40601

La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en <https://sedeelectronica.lesaka.eus/>

Código Seguro de Verificación: AECA AAEU Z4NW LNJN NJHV



FIRMADO POR

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY
15/02/2024 12:17



SELLO

Tragarki-ohol elektronikoa argitaratua
15/02/2024
Iragarki-ohol elektronikoa argitaratua

**DITUZU ETA GURE EKIMENARI
LAGUNTZA EMAN NAHI DIOZU?***
NORA ERAMAN BEHAR DIRA?

**Parte hartzeko aski duzu partekatu nahi
duzun irudi hori, argazki hori herriko etxera
eramatea.**

*****ZEIN EGUN ETA ORDUTEGIAN?***
**Astelehenetan, 9:30etatik 13:00era lan taldea
egonen da. Bestela, udaletxean utzi dezakezu
astelehenetik ortzegunera 7:30etatik
15:00etara eta ortziraletan 7:30etatik
14:00etara.**

****ZER EGINGO DUGU ZURE
ARGAZKIEKIN?***

**Herriko etxean arituko gara lanean, han
kontu handiz kopia digitala egin, zuri
orijinala itzuli eta nahi izanez gero kopia
eman, argazkiaren inguruan pixkot solastu
eta zure baimenarekin gainontzekoekin batu
eta herriko argazki komuna sortu eta
partekatu egingen dugu.**

<https://erran.eus/bortziriak/1704802998026-gure-ondarea-diren-lesakako-argazkiak-bildu-eta-digitalizatuko-ditugu>

QUIERES APOYAR NUESTRA INICIATIVA?*
****¿DÓNDE HAY QUE LLEVARLAS?***

*Para participar basta con llevar esa imagen que
quieres compartir, esa foto al ayuntamiento.*

¿QUÉ DÍA Y EN QUÉ HORARIO?
*Todos los lunes, de 9:30 a 13:00 estará el grupo
trabajando. En caso de no poder en este horario,
podréis dejarlo de lunes a jueves de 7:30 a 15:00 y
los viernes de 7:30 a 14:00 horas en el ayuntamiento.*

¿QUÉ HACEMOS CON TUS FOTOS?

*Trabajaremos en el ayuntamiento, allí haremos
cuidadosamente la copia digital, te devolveremos la
original y, si quieres la copia, charlaremos sobre la
foto y con tu permiso la uniremos al resto y
crearemos y compartiremos la foto común del
pueblo.*

<https://erran.eus/bortziriak/1704802998026-gure-ondarea-diren-lesakako-argazkiak-bildu-eta-digitalizatuko-ditugu>

Lesaka, 2024ko otsailaren 8.

Alkatea, Ladis Satrustegui Alzugaray.



LESAKA

Lesakako argazki zaharren bilduma - SEFYCU 40601

La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en <https://sedeelectronica.lesaka.eus/>

Código Seguro de Verificación: AECA AAEU Z4NW LNJN NJHV